

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko apirilaren 15ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**13.- ESKUALDEKO ENPLEGU PLANEKO “ENPRESA SIMULATUA”
IKASTAROA KONTRATATZEKO ENPRESEA ESLEITZEA.**

Xedea

Eskualdeko Enplegu Planeko “Enpresa Simulatua” ikastaroaren enpresea kontratatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2013ko martxoaren 4an Merkataritza, Sustapen eta Turismoko batzorde informatiboan, baldintza administratibo eta teknikoak onartu ziran eta esleipen jardunbideari hasikerea emon jakon.

Bigarrena: FORMALAN, S.COOP PEQUEÑA, TRACK CONSULTORES, SL eta GESTIONA XXI CONSULTORES, SL enpresei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jaken, 2013ko martxoaren 20an.

Hirugarrena: GESTIONA XXI CONSULTORES, SL enpreseak, eskaintzea bialdu dau.

Argudioak

Lehenengoa: Hautagaiak **A** kartazala “**Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena**” aurkezten dau eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: **B** kartazala “**Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa**” eskatutako dokumentuakaz bat datorrela ikusten da.

Hirugarrena: **C** kartazaleko **PROPOSAMEN EKONOMIKOA** aurkezten dau. Proposamena **31.700 eurokoa** da.

Laugarrena: Errekerimentua egin ondoren, dokumentazinoa konpultsatu dau enpreseak.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: GESTIONA XXI CONSULTORES, S.L enpresea, “Enpresa Simulatua” ikastaroa emoteko kontratua **31.700 €**tan esleitzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onesprenaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko apirilaren 18an.

ONETSIA
ALKATEA